



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 28a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egindako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziatzean, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide diplomatiko guztiak bultza ditzan gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko, eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan arrakala digitala deuseztatzekeko plan bat abian jar dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegunek guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroyen kudeaketari eta egungo hitzarmena langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko ureztatzaileen kuota berrikusteari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, eskola-porrota murriztera bideratutako proiektuetarako Europako Gizarte Funtzaren finantzaketari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Tuteran itxarote zerrendak murrizte aldera Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, abenduaren 14ko 91E Ebazpenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuburuarena. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeo obren amaierari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (17. or.).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzeko arauak (17. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egindako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egindako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuari:

Iragan abenduaren 10ean hedabideetan argitaratutako informazioen arabera, Siadeco enpresak prestatutako inkesta soziolinguistiko bat egin da orain dela gutxi zenbait ikastetxetan, Sakanako Mankomunitateak aginduta.

Inkesta Mendialdeko 12tik 16 urtera bitarteko 1.900 ikasleri egin zaie. Dokumentuan, gurasoen aurretiazko baimenik gabe, honako galdera hauek jasotzen ziren: “Gustuko al duzu euskara?,” “Gustuko al duzu gaztelania?,” “Eta gustuko al duzu ingelesa?,” “Zure ustez zein da hizkuntzarik egokiena?” “Seme-alabaren bat eskolan izango baze-

nu, zein hizkuntzatan nahiko zenuke hark ikastea?,” “Zure ustez, etorkizunean, zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Nafarroan?,” “Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino?,” “Euskalduna sentitzen zara?”

Galdera horiek deigarriak dira, are gehiago kontuan hartzen bada galdetegiaren ez dela inondik esaten konfidentziala eta anonimoa izanen dela. Izan ere, galdetegiaren hasierako galderak ikusita –adina, bizilekua, ikaslearen eta gurasoen jaioterria, ikastetxea, maila, ikasgela eta abar–, inkesta-gileek erraz samar identifikatzen ahal dute erantzuten-emailea.

Gure ustez, gisa honetako galdetegiak pertsonen askatasunaren aurkako esku-sartze onartezina dira, eta hori bereziki larria da, beren ikastetxetan dauden adingabeen kasuan. Identitatea, edo hari hain estu lotutako hizkuntz lehenespenak, oso pertsonalak dira, erlijioa, ideologia politikoa edo sexu-lehenespenak bezainbat. Hortaz, horiek guztiak esparru hertsiki pribatuari dagozkio. 12tik 16 urtera bitarteko haurrei eskatzea, gurasoen aurretiazko baimenik gabe eta konfidentzialtasunik edo anonimotasunik batera bermatu gabe, haien ideologiaren edo identitatearen autorretratu egin dezaten, irakasleekin eta ikaskideekin partekatzen duten ikasgela berean, herri txikietan –non, kasu askotan, terrorismoaren aldeko presio handia ere egon baita–, hertsapen politiko eta identitario larria da, gizarte libre eta ireki baten printzipioen eta balioen aurkakoa.

Ikastetxeak ezin dira inolaz ere baliatu identitate politikoen kontrola eta testa egiteko toki gisa. Ikerketa soziolinguistiko oro gisa horretako kon-tuetara mugatu behar da, eta gurasoen edo tutoreen baimen espres eta idatziarekin egin behar dira adingabeei egiten zaizkienean. Halaber, inkestari erantzuten diotenen pribatutasuna bermatu behar da beti.

Hortaz, honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du 1.900 adingaberi Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruz egindako inkesta, eta Nafarroako

Gobernua premiatzen du ikastetxeetan eraginkortasunez berma ditzan ikasleen aniztasuna, pribatasuna eta askatasuna.

Iruña. 2015eko abenduaren 10a

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, hura Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio publiko bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua

Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta haietaz gozatzea kudeatuko duena

Zioen azalpena

Ezkabako Gotorlekua, 1877tik 1912ra bitarte eraikia, beti izan da Defentsa Ministerioaren jabetzakoa, salbu eta II. Errepublikaren garaian, Justizia Ministerioari eskualdatu baitzitzaion (1934-1946). Gerra Zibilaren ostean, preso errepublikarrak hartu zituen.

Gaur egun ez dauka erabilera militarrik. Defentsa Ministerioa kudeaketa eredu bat aztertzen ari da, beste entitate publiko batzuekin partekatua, gotorlekua berrerabiltzeko.

Iruindar eta Iruñerriko bizilagun asko joan ohi dira Ezkabara, jolastera eta atsedean hartzera. Ibilaldi ugari egin daiteke bertan, seinalezaturiko bidezidor ugarietan barrena, halako moduan non mendi osotik ibil baitaiteke. Halere, 1998tik hona Ezkaba aisialdirako naturgune bihurtzeko planteatu diren proiektuetarik bakar bat ere ez da burutu. Hori dela-eta, Iruñeko Anaitasuna Kultura, Kirol eta Aisialdi Elkarteak udazkenero antolatzen du Ezkabako Mendi Martxa, hiritik hain gertu dagoen naturgune bat erabili eta gozatu ahal izatea erreibindikatzeko, mendi-ibiliak maite dituztenentzako eta mendigoizaleentzako ibilaldi samur bat eginez.

2007an, egoeraren paralisia eta erakundeen pasibotasuna ikusita, Berriobeitiko Udalak erabaki zuen ekimena bere gain hartzea eta Defentsa Ministerioarekin hitz egiten hastea, gotorlekuaren titularra den aldetik, haren balizko lagapenari begira. Hartara, gotorlekuaren balizko erabilerei buruzko hausnarketa-foro bat eratu zen, non hainbat profesionalak parte hartzen baitzuten. Foroak

urte horretan berean eman zituen ezagutzera bere ondorioak. Ekimen hori bertan behera gelditu bazen ere, udalen eta toki entitateen artean mendiarren eta gotorlekuaren egoerarekiko interesa piztea lortu zuen.

2009an, Iruñerriko Mankomunitateak proiektu bat egin zuen, mendian eskualdeko parke handi bat egiteko (hiriburuarren aldirietako bigarrena, Arga ibaiko parkearen atzetik). Horretarako, zenbait azterlan prestatzen ari dira, zeinen artean deigarri suertatu baita gailurrera funikular edo teleferiko bidez iristeko garraioaren bideragarritasunari buruzko azterlana.

2006ko apirilaren 25ean, Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordeak legez besteko proposamen bat onetsi zuen, Gotorlekua Nafarroako Gobernuari lagatzeari buruzkoa. Proposamenaren adierazten zen beharrezkoa zela Administrazio zentralaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketei berrekitea, hitzarmen bat sinatzeko eta horren bidez gotorlekua lagatzea ahalbidetzeko, instalazioa aisiarako eta xede sozialetarako erabiltzen lagunduko duen proiektu integral bat

egin ahal izateko eta Ezkabako espexeko biktimak omentzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Defentsa Ministerioarekin negoziatzean Ezkabako Gotorlekuaren erabilera lagatzea edo dohaintzan ematea.

2. Fundazio publiko bat sor dezan, eginkizun izanen duena gotorlekua Memoria Historikorako gune gisa zaharberritzea eta gotorlekuaren ingurunea naturgune bihurtzea. Fundazioaren patronatukide izanen dira Ministerioa bera, Nafarroako Gobernua, Iruñerriko Mankomunitatea, parlamentu-taldeak eta memoria historikoaren nahiz ingurumenaren arloko elkarteak.

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Krisi-egoerak –langabezia dramatikoki hazi da, soldatak jaitsi egin dira eta gizarte eskubideak murriztu egin dira– berekin ekarri du pobrezia areagotzea; izan ere, pertsona askok dauzka zailtasunak oinarritzko baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko –elikagaiak, etxebizitza, ur-, argi- eta gas-hornidura–, beharrezkoak direnak bizitza duin baterako gutxieneko baldintzak bermatzeko.

Mozio honen xedea da erantzun bat ematea bizitza duin baterako gutxieneko baldintzak bermatu behar dituzten osagai oinarritzko eta funtsezkoenetako bati.

Pobrezia energetikoa dago etxe batean ezinezkoa dutenean energia-zerbitzu aski ordaintzea oinarritzeko beharrak asetzeko edo/eta diru-sarreraren zati handiegia erabili behar dutenean etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko.

Hiru faktoreren ondorioz gertatu ohi da hori: familia-errenta, energiaren prezioa eta etxebizitzaren efizientzia energetikoa. Hiru osagai horiek balio dute ulertzeko nola sortzen den pobrezia energetikoaren fenomenoa, eta arazo horri aurre egitera bideratutako politika publikoak definitzeko abiapuntua ematen digute.

Estatuko Estatistika Institutuaren arabera, pobrezia energetikoa azken lau urteotan % 69 igo da Espainian. Igoera hori batik bat zor zaie familien diru-sarrerak jaitsi izanari eta langabezia igo izanari, soldatak azken lau urteotan % 12 baino gehiago jaisteari, eta energiaren prezioa, aldiz, % 30 baino gehiago igotzeari. Datu horiek, zalan-tzarik gabe, Alderdi Popularrak baliatutako eta UPNk itsu-itsuan babestutako politiken ondorio zuzena dira.

Izan ere, Nafarroan, beste erkidego batzuetan baino egoera are hobeto batetik abiatu arren, Ingurumen-zientzien Elkarteak 2014an argitaratutako azterlan baten arabera, 96.000 nafar bizi dira pobrezia energetikoan, eta horietatik 44.000k ezin dute osasunerako tenperatura egoki batean jarri berogailua. Gainera, Espainian baino handiagoa da Nafarroan etxeko energian beren diru-sarreraren % 10 baino gehiago gastatzen duten familien ehunekoa: Espainian % 17koa da, eta Nafarroan, berriz, % 19koa.

Gaur egun, ez Espainiako Gobernuak ez Nafarroakoak ez daukate politika berariazko eta eraginkorrik pobrezia energetikoaren fenomenoaren prebenitzeko eta milaka familiaren zailtasuna konpontzeko, etxe guztietan bermatuta egon dadin ezinbesteko gutxieneko kontsumoa; bereziki, urtaroz zehatz batzuetan.

“Bonu soziala” 2009an sortu zen kolektibo zehatz batzuk babesteko xedez. Halere, praktikan ikusi da bonu hori ez dela eraginkorra; izan ere, bonua hobetu egin beharko zen, kontuan hartuta etxebizitzaren baldintzak eta familien diru-sarreraren maila.

PPren Gobernuak egin duen energia-merkatuaren erreformak ere ez dio konponbide eraginkorrik eman pobrezia energetikoaren fenomenoari, ez dagoelako alde aurreko diagnostikorik, eta energia berriztagarrien aldeko apustuari pizgarriak kentzen jarraitzen duelako, eta tarifa-defizitari konponbiderik eman gabe.

Sektore elektrikoaren liberalizazio teorikoak ere ez du balio izan hornigaien prezioa merkatzeko, zeren prezioek gora egiten jarraitzen baitute. Gobernuak beste alde baterantz begiratzen duen bitartean.

Nafarroan, Foru Gobernu berriak larrialdi sozialeko laguntza batzuk taxutu zituen irailan, pobrezia energetikoaren parte bat arintzen saiatzeko. Halere, praktikan ikusi da ez direla eraginkorrik izan, ez forman ez zenbatekoan, eta Nafarroako milaka familiak jarraitzen dute egun pobrezia energetikoa pairatzen, eta horrek eragotzi egiten die beren beharrezko oinarritzkoenak asetzeari.

Europar batzordearen zenbait esperientzia, fakturak ordaintze aldera kolektiborik ahulenei emandako laguntza puntualez gain edo aurrezpenari eta efizientzia energetikoari zuzendutako gain, unerik kritikoenetan hornidura bermatzen dutenak. Helburua da bermatzea ez dutela hornidura-etenik izan hilerik hotzenetan edo/eta kontsumitzaileentzat ahulenei; alegia, adinarengatik osasun-egoerarengatik, desgaitasunen bat edukitzeagatik edo finantza-segurtasun gabezia larriaren egoteagatik beren beharrezko oinarritzkoenak eta familia-unitateko gainontzeko kideenak asetzen direla bermatzeko moduan ez daudenak.

Estatuko legediak ez ditu jasotzen, eta bereganatu ere ez ditu egin, Europar pobrezia energetikoa dela-eta emandako azken zuzentarauak:

– Elektrizitatearen Barne Merkatuari buruzko zuzentaraua (2002/91/EE): Europar Batasuneko estatuak behartzen ditu gai honi ekiteko planak gara ditzaten.

– Elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komunaren zuzentaraua (2009/72/EE): zerbitzu publiko bat dela azpimarratzen du eta, horrenbestez, estatuak behartzen ditu “bezero ahul” kontzeptua defini dezaten, eta hornidura bermatu beharra dagoela nabarmentzen du.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Lan-mahai bat sor dezan gure erkidegoko pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko eguneratu bat egiteko eta auziari buruzko aukerak eta konponbideak aurkitzeko.

Lan-mahai horretako kide izanen dira toki administrazioa, kontsumitzaileen elkarteak, gizarte entitateak, arloko adituak eta enpresa hornitzaileak.

2. Pobrezia energetikoaren aurkako talka-plan bat presta dezan, helburu nagusi izanen duena herritarrei bermatzea beren etxebizitzetan oinarriturako hornidurak jasotzeko eskubidea.

Hartara, Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, energia-konpainiekiko akordioak ezarriko ditu, ekidite aldera hornidura-etenik izatea hilerik hotzenetan baliabide gutxiko eta ahuleziarik handieneko etxeetan.

3. Pobrezia energetikoko egoeran dauden pertsonen etxebizitzaren zaharberritze eta hobekuntza energetikorako plan bat abian jar dezan.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiaz du:

4. "Kontsumitzaile ahul" kontzeptua definitu dezan, Europako zuzentzaruetan jasotzen den moduan.

5. Pobrezia energetikoaren aurkako planak ezar ditzan, elektrizitatearen (2012/72/EE) eta gasaren (2009/73/EE) barne merkatuari buruzko zuzentzaruetan proposatzen den moduan.

6. Efizientzia energetikoari buruzko arauak abian jar ditzan, lehentasuna emanez pobrezia energetikoak ukitutako etxeei.

7. Bonu sozialaren definizio berri bat ezar dezan, kontuan hartuko dituen etxebizitzaren baldintzak eta familiaren diru-sarreraren maila, eta gas naturalerako eta butanorako bonu sozial bat ezar dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiaz du ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz du ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea mozioa, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioa jabeldura baten ondorio da (9-15/ITP-00012), eta horren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz du ekintza Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzera eta Sakana 2020 Plan Estrategikoa bultzatzera.

Sakanaren garapen ekonomikoak eta, horrenbestez, garapen sozialak –hor sartzen dira Arakilgo ibarra, Burunda eta Ergoiena– ahulezia-seinale nabarmenak erakusten ditu; izan ere, langabezia-tasa handia da eta enpresen inbertsio-maila jaitsi egin da. Bi faktore horiek heldu dira jarduera ekonomikoa eta soziala bultzatzen duten jarduera berriak ezartzeko erakargarritasunik eta pizgarririk ez egotetik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak jar ditzan, Sakana 2020 Plan Estrategikoa oso-osorik garatzeko.

Iruñean, 2015eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazioarekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan.

Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeko 3. artikulua sei atal zehatzetan ezartzen du administrazio

publikoen zerbitzuak eskuratzeko baldintzaberekotasuna: telekomunikazioak eta informazioaren gizartea; urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak; garraiobideak; jendearentzat eskuragarri dauden ondasunak eta zerbitzuak; administrazio publikoekiko harremanak; eta unibertsitateak eta hezkuntza-sistema.

Legea orain dela bost urte baino gehiago sartu zen indarrean; halere, oraindik ez da erregelamendu bidez garatu, batik bat administrazioko espazioen irisgarritasunari dagokionez. Legeko 3. artikuluan jasotako sei atal horietako bat bakarrik dago arauturik; hain zuzen ere, "administrazio publikoekiko harremanak" izenekoa, 2014ko abuztuko foru dekretu baten bidez.

Erregelamendu-hutsune hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak teknikariek adierazi zuten, CORMINek irisgarritasun unibertsalari buruz iragan legegintzaldiaren amaieran antolatutako jardunaldi batzuetan, hori eragozpen bat dela arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatzeko nahiz arbitrajea irisgarritasun arloko gatazken ebazte-sistema estrajudizial gisa ezartzeko.

Nafarroako Parlamentuak Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legea aho batez onetsi zuenetik bost urte baino gehiago igarota, eta horren erregelamendu bidezko garapenik ez dagoenez eta ezgaitasuna duten pertsonen elkarrekin neurriak eskatzen ari direnez, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Lege-

aren aplikazio-eremuekin zerikusia duten dekretuak gara eta abiaraz ditzan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Horretarako, bilerak eginen ditu aire-nabigazioko enprekin eta Nafarroako gizartean horrekin zerikusiren bat daukaten eragile nagusiekin”.

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide diplomatiko guztiak bultzatzen gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko, eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2015eko abenduaren 16an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide diplomatiko guztiak bultzatzen gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko, eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Dauden bide diplomatiko guztiak bultzatzea eta beharrezkoak diren guztien ezarpena sustatzea erabakitasunez jarduteko, bai Europar Batasunean bai Nazio Batuen Erakundean, gatazka egoeran dauden herrialdeak baketzeko ahaleginean, hori baita pertsonen gaur egungo lekualdatze masiboaren jatorrian dagoen arazoa.

2. Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestea. Europar Batasunak eskumenak izan behar ditu politika komun egiazko bat abian jartzeko, errefuxiatuen integrazioarako printzipioak eta laguntzak eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzak jasoko dituenak. Politika komun horrek finantza-baliabide nahikoak izan behar ditu, orain bizi duguna bezalako larrialdi egoeren aurrean Europar Batasunak duen erantzuteko gaitasuna indartzeko.

3. Hirugarren herrialdeekiko elkarrizketa eta lankidetzaren indartzea, ikuspegi europar eta nazionaletik, errefuxiatuen arreta egokia ahalbidetzeko.

4. Pertsonen trafikoan aritzen diren erakunde kriminalen aurkako borroka sustatzea, Europolekiko lankidetzaren estuan, eta itunak sinatzea jatorrizko eta igarobideko herrialdeekin, gizaki-salerostetako sareak borrokatzeko.

5. Ahalik eta gardentasun handiena sustatzea Europar Batasunaren asilo, migrazio eta integratzearen funtseko (FAMIN) baliabideen erabilerraz dakonez.

6. Gatazka duten herrialdeekiko eta errefuxiatu gehien hartzen duten herrialdeekiko lankidetzaren, ACNURen eta Europar Batasunaren laguntzaren osagarri. Eskualde horien garapen eta egonkortzerako laguntza ematea, arazoari errotik heltzeko mekanismo gisa.

7. Errefuxiatuen harrera- eta integratze-beharriaz emandako erantzuna egokitzea heltzen diren pertsona kopuruetara eta birkokatze eta birfinkatzeari dakonez Europar Batasunak adierazitakora, betiere horretarako sorturiko ministroarteko lantaldearen koordinaziopean eta autonomia erkidego eta toki entitateen parte-hartzearekin, beren eskumenen esparruan, Immigrazioaren Konferentzia Sektorialaren bitartez eta Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren arabera. Zehazki, ondoko xedeetarako:

a) Errefuxiatu eta asilo-eskatzailen eskura jarritzea beharrezkoak diren harrera-postuak, eskolatzeko-eraztasunak eta osasun- eta gizarte-laguntza egokiak.

b) Parte hartu ahalko duen lan boluntarioarako planak prestatzea, harrera-herrialdeko gizarteak errefuxiatuen integratze-prozesua errazteko, hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan.

c) Laguntza ematea batez ere arreta berezia eskatzen duten adingabeei, batzuetan ez baitute heldu baten laguntzarik.

d) Integratze egokia bermatzea errefuxiatuei, kontuan hartuta haien ezaugarriak eta autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako administrazioen ahalmena beren eskumeneko zerbitzuak emateko –herrerantz, oro har, baina baita ere errefuxiatuentzat–, finantzaketarako mekanismo desberdinetatik abiatuta.

e) ACNUR-ek Espainian duen ordezkartzaren aholkularitza eta lankidetzaren kontuan hartzea, bai

eta gobernu kanpoko erakundeena eta errefuxiatuen harreraren eta integratzearen espezializatutako entitateena, eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektore osoarena ere.

f) Jarraitzea ahalegina egiten asilo-eskatzailen eta nazioarteko babesaren onuradunen harrera eta integratzearen funtsak handitzeko, bai Europa mailan bai Estatu mailan, kontuan hartuta autonomia erkidegoek eta toki entitateek beren eskumenen esparruan nazioarteko babes-eskatzaileri laguntzeko garatzen dituzten jardueren babes, haiek ematen dituzten zerbitzuak babestuta eta Asilo, Migrazio eta Integratzearen Funtsaren baliabideak hobetuta.

8. Bermatzea Espainiara iristen den inori ez zaiola galaraziko nazioarteko babes eskatzea, horretarako eskubidea badu: hori dela eta, jarraitzaileak eman behar dira “bero-beroan egindako itzulketak” izenez ezagutzen direnak ez egiteko; izan ere, gure ordenamendu juridikoa urratzeaz gain, galarazi egiten dute, de facto, gure herrialdera iristen direnek babes-eskaria egitea.

9. Araudia egokitzen jarraitzea, ahalik eta arinen, zuzentzarautara, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen erregelamendura eta arau osagarrietara, eta sartzeko, kasu bada, errefuxiatuen iristea dela eta Europar Batasuneko Kontseiluak duela gutxi onetsitako xedapenak beharrezko dituzten egokitzapenak. Horrek guztiak ziurtasun juridikoko marko bat osatu behar du, errefuxiatuen harrera eta integratzearen antolatzeko izapide burokratikoak arinduko dituen, pertsona horiek beste herrialde batzuetatik birkokatu edo birfinkatuak izan nahiz hasieratik gure herrialdean babes eskatutakoak izan.

10. Gure herrialdera iristen diren asilo-eskatzaileri informazioa ematea eta bermatzea nazioarteko babesaren prozesurako sarbidea, haien erabakiak eta adierazpenak bideratzea asiloaren ikuspegi arduratsu, elkartasuneko eta integratzaile baterantz, eta desbideratze xenofobo, baztertzaila edota errefuxiatuak mehatxu gisa identifikatzekoak saihestea. Horrekin lotuta, sentibilizazio kanpaina bat jarriko du abian, Espainiako herritarrei zuzendua, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen –horien artean pertsona errefuxiatuak– arteko bizikidetzari buruzkoa, demokraziaren eta giza duintasunarekiko eta giza eskubideekiko errespetuaren ezinbesteko parte den aldetik, eta, halaber, jarrera arrazista edo xenofoboaren agerpena ekiditen ahaleginduko dena”

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan arrakala digitala deuseztatzeko plan bat abian jar dezan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan arrakala digitala deuseztatzeko plan bat abian jar dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan arrakala digitala

gainditzeko plan bat abian jar dezan, ekintza zehatzak jasoko dituen bazterkeria digitala pairatzeko arrisku handiena duten kolektiboen alde –persona nagusiak, ikasketa gutxiko pertsonak, identitate digitalik gabeko autonomoak edo/eta mikro-ETEak– eta emakumearen berdintasuna bultzatuko duena Interneteko erabilera aurreratuei dagokienez.”

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegunen guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegunen guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Wi-Fi-a (Internet-sarerako sarbide harigabea) jar dezan Nafarroako Gobernuaren liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi, gaztegunen eta gainontzeko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentrozen kudeaketari eta egungo hitzarmena langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentrozen kudeaketari eta egungo hitzarmena langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko parlamentari José Miguel Nuin Morenok honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozietako Batzordean erantzun dezan.

Ezgaitasuna artatzeko zentroekiko itun berriaren negoziazioaren blokeoa eta enpresa esleipen-hartzaileak aurreko hitzarmena bete ez duela ikusita, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil berarekin itundutako Ezgaitasuna Artatzeko Zentrozen kudeaketarako? Zer neurri hartuko ditu zentro horietako langileei egungo hitzarmena aplikatzen zaiela bermatzeko?

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Nafarroako Ubideko ureztatzaileen kuota berrikusteari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubideko ureztatzaileen kuota berrikusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Zenbait hedabidetan agertutako berrien arabera, Espainiako Gobernuak, Nafarroako legebiltzarkide batekin izandako ahozko harremanetan, konpromisoa hartu zuen Nafarroako Ubideko ureztatzaileei ezarri behar zitzaien % 60ko kuota-igoera berrikusteko, eta abenduaren 21ean bilera bat egin behar zen horiek guztiak zehazteko. Nafarroako Gobernuak bilera hori lehenago egiteko eskaera egin zuen –abenduaren 18an egiteko, hain zuzen–, baina kuota berrikusteko konpromiso hori idatziz jaso dadila ere.

Jaso al du Nafarroako Gobernuak eskaera horien inguruko erantzun idatzirik Espainiako Gobernutik? Eta ba al du Espainiako Gobernuak, kuota hori agindutako terminoetan berrikusi ondoren, jasoko ez liratekeen diru-sarreraren inguruko konpromisorik?

Iruñean, 2015ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, eskola-porrota murriztera bideratutako proiektuetarako Europako Gizarte Funtsaren finantzaketari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, eskola-porrota murriztera bideratutako proiektuetarako Europako Gizarte Funtsaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion. -

Hezkuntza Departamentutik adierazi dute kontrol berriak ezarri beharra dagoela, DBHko 3. Mailako matematiketan emandako eskolen eraginkortasuna dela-eta. Antza denez, Europako Gizarte Funtsak finantzatutako programa bat ezarri nahi da, eskola-porrotari aurre egiteko xedez.

Ez al litzateke egokiagoa izanzen eskola-porrota murriztera bideratutako eduki zehatzekiko

proiektuak egitea, beharrezkoak izanen liratekeen gastuak garatuko lituzketen eta Europako Gizarte Funtsaren programa justifikatzen ahal luketen atalekin?

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Tuteran itxarote zerrendak murrizte aldera Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Tuteran itxarote zerrendak murrizte aldera Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez

Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Orain dela gutxi, Tuterako osasun-barrutian Traumatologiako eta Errehabilitazioko itxarote zerrendak arintzearen, Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendaritzak atzera bueltatu ditu Oinarrizko Osasun Laguntzak espezialitate horietara 2015ean egindako deribazioak, kasuko sendagileek berriz ere balora ditzaten eta sendagileak egoki iritziz gero hitzorduak bertan behera uzteko.

Osasun Departamentuak zer neurri hartuko ditu Tuteran itxarote zerrendak murrizteko?

Iruñean, 2015eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, abenduaren 14ko 91E Ebazpenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuburuarena.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, abenduaren 14ko 91E Ebazpenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuburuarena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen izenean eta Legebil-

tzarraren Erregelamenduak dioenari jarraiki, honako ahozko galdera egin nahi dio Nafar Gobernuari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Berriki ezagutu dugu abenduaren 14ko 91E/2015 Ebazpena, Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuburuak egindakoa, hainbat lanposturen akoplamenturako prozeduraren deialdia biltzen duena. Ebazpen horren eranskinean akoplamenturako eskaintzen diren lanpostuetan hizkuntza eskakizuna oso urria dela ikusi ahal izan dugu, eta zinez kezkarria iruditzen zaigu. Alegia, hizkuntza profila ez da ia inongo lanpostutan eskatzen, ezta eremu euskaldunean ere.

Zein irizpideri jarraitu dio Nafar Gobernuak lanpostu hauen hizkuntza eskakizuna zehazteko? Ba al du asmorik irizpide horiek aldatzeko?

Iruñean, 2015eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeko obren amaierari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeko obren amaierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Mendigorrian zahar-etxea eraikitzeko obren amaiera dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

– Nafarroako Gobernuaren aurreikuspena, obren amaierari dagokionez.

– Egin beharreko obren aurrekontua.

– Aurreikusitako kudeaketa-eredua.

– Zahar-etxea abian jarri arte aurreikusitako kronograma.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Sustapen Ministerioak lehiaketa publikora ateratu N-232 errepidea Aragoiko Gallur eta Mallén herrien artean bikoizteko obrak. Tarte horrek bat egiten du Nafarroak 2008an autobia bihurtu zuen errepidearekin.

Ministerioaren aurreikuspenen arabera, 64 hilabetekoa da obra egiteko epea.

Foru erkidegoan bikoizteke gelditzen dira ehunka metro gutxi batzuk; hortaz, beharrezkoa izanen da bikoizketa burutzeko jarduketa bat egitea eta Ministerioaren obra baino lehen edo harekin batera prest edukitzea. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa, aurrekontu, epe eta aurreikuspen uste du beharko direla errepide horretan bikoiztu gabe dagoen tarte bikoizteko eta Aragoiko tartearekin lotzeko?

Corellan, 2015eko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2015eko abenduaren 14ko erabakia, non eskatzen baitu 2015eko abenduaren 28an, 29an eta 30ean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta 2015eko abenduaren 28an, 29an eta 30ean ez dagoela arratsaldeko parlamentu-jarduerarik aurreikusita, hona ERABAKIA:

1. Aldatzea Mahaiaren 2014ko abenduaren 9ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2015eko abenduaren 28, 29 eta 30eko lan-

dia goizekoa izanen da, baina horrek ez du ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak esku-ragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2014ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2015eko abenduaren 28, 29 eta 30ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea, zeinaren 9.3 a) artikuluan xedatzen baita Kontseilu horretako bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela gehiengo osoz. Eledunen Batzarrarekin bat, eta Erregelamenduko 37.1.bederatzigarren artikulua xedatutakoaren arabera, hona ERABAKIA:

Lehen. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko pertsona bat hautatuko du Nafarroako Par-

lamentuko ordezkari gisa, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Parlamentu-talde bakoitzak edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bat aurkezten ahalko du. Hautagaiak aipatu foru legean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia. Proposatutako hautagaiak aipatu foru legeko 14. artikuluan ezarritako bateraezintasunen batean erortzen ote diren zehazte aldera, proposamen-idazkiarekin batera akreditazio edo adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko baita ez direla bateraezintasunean erortzen.

4. Parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagaiak aur-

kezteko epea heldu den 2016ko urtarrilaren 28ko 12:00etan bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide baten hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa.

8. Mahaiak botoak zenbatu eta boto gehien lortu dituen hautagaia aldarrikatuko du. Hautagaiak Legebiltzarreko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa lortu behar du gutxienez.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak boto kopuru bera lortu duten

hautagaien arteko beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan baldin badi-rau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

10. Lehenbiziko bozketan postua betetzen ez bada 8. arauan zehaztutako baldintzak ez bete-tzeagatik, bozketak errepikatuko dira. Lehendakaritzak botazioak eten ahalko ditu zir-kunstantziek horrela jokatzeko gomendatzen badu-te. Segidan suertatzen badira hiru botazio hauta-gaia hautatu gabe, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta prozesu berri bati emanen zaio hasiera.

Bigarrena. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2015eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

